

CHAMSEDDINE MARZOUG

EUROPAK IKUSI NAHI EZ DITUEN GORPUAK EHORZTEN DITUENA

Tunisiako Zarzis hiriko hondartzan lehorreraturiko errefuxiatuen hilotzei hilerri bat bideratu die Chamseddine Marzoug arrantzari ohiak. Duintasunaren izenean, banan-banan bakoitza ehortzen dabil *Ezezagunen kanposantua* izeneko gunean. Mediterraneoaren beste aldean, Europar Batasunak (EB) ez du jarrera bera. Legeak behartzen dituen bilaketa eta sokorri zereginak geroz eta gutxiago betetzen ditu eta horretan dabilzan elkarteei oztopoak besterik ez dizkie jartzen.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Odol itsaso bat bihurtuko zaigu Mediterraneoan, ezer eginez gero”, Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Erakundeko Agentziaren bozeramaileak 2019ko ekainean luzaturiko deia darra dugu. Itsas bidean bizia galtzen duten etorkinen odolaz ari da. Odol andana dugu Mediterraneoan ur gatzatuari nahasirik: 15.000 hilotz kontatu dituzte azken bost urteetan. 2019 urtean bide horretan abiatutako zortzitarik bat ito da.

Gorpu horiek bere biziaren parte dituzte Chamseddine Marzoug tunisiarrak. “Arrantzarako itsasoratu eta arrainen orde z gorpua dauzkagu”. Hondartzetan gauza bera. Hamarnaka kontatzen ditu herrestan, uhainek lehorreraturiko anonimoen gorpu hotzak. “Oso zaila da ustelduriko gorpuen ikustea, erdi-gizonak, erdi-emakumeak, zangorik gabekoak, bururik gabekoak, batez ere umeak direnean, izugarri hunkigarria da, hobengabeak direlako”. Zarzis hirian bizi da, Libiatik 60 kilometrotara, lanbidez arrantzari izana, urteak daramatza Ilargi Gorria elkartearen laguntzaile gisa. Errealitate horrek ezinezona eraginik, bereari segi eta errefuxiatuen duintasunaren izenean zuzendu zien hilerri bat 2011n. Libia eta Italia arteko uretan ito diren anonimoei eskainirik hilerriari *Ezezagunen kanposantua* izena jarri dio. “Hainbeste sufritu eta haiez ezer ez dakigun pertsona horientzako da hilerri hau; hilobi duin bat merezi dute”. Ehorzteko baimena prokuradoreari galdetu, gorputegian gorpua hartu, hilerriera eraman eta tokitxo egi-

ten dio ezezagunari, lore sorta bat utziz lur metaren gainean. Astean hiru aldiz dator loreak ureztatzera. 2018ko azaroan 400 gorpu ziren hilerrian. Hauetan bakarra identifikaturik: Nigeriako Rose-Marie 28 urteko emakumea eta ama, 2017ko maiatzaren 27an ehortzia. Beste guztiak anonimoak. Info Migrants komunikabideari eskainirik elkarrizketan mesede bat eskatzen dio Europari: “Ez dut gehiago gorpurik ikusi nahi, arazo hau oso laster konpondu beharra dago. Europari eskatzen diot *non zaude?* Mugak babestu beharrean pertsona hauek babestu”. 2018ko azaroan luzatu eskaera da.

Orduz geroztik egoera okertu da. Mediterraneoan dauden salbatze-operazioei begira jarri eta Europar Batasunaren (EB) arduragabekeria begibistakoa da: ez du gehiago itsasontzirik horretara bideratzen; salbatze operazioetan dabilzan elkarteen lana etengabe oztopatzen dabil eta gainera, Mediterraneo zentralaren espazio gehiena emigratzaileen tortura eta bortxaketa espazio den Libiako Estatuaren esku utzia du. “Kaosa”. Hitz horrekin laburbiltzen du egoera Sophie Beau SOS Mediterraneoan Gobernu Kanpoko Erakundeko (GKE) zuzendariak: “Kaosa dago Mediterraneoan”. 2019an Mediterraneoan itotako etorkinen kopurua 1.246koa zen abenduaren 15ean. Baina zenbat dira inor ohartu gabe hondoraturikoak? Erantzuna argi du Beauk: “Segur guk jakin gabe hondoratzen direla ontzi batzuk. Bidea oso luzea da eta sokorri ontzi gutxiegi daude

guztia kontrolatzeko”. Azken urteetan, EBk zein Libiak sokorri ontziei bideratu oztopo eta blokeoak azkartu arau, heriotza tasak ere gora egin du.

ELKARTEEN LANA OZTOPATURIK

EBren erabakiei begira jarri gero, are begibistakoa da Estatuaren arduragabekeria. Alta, itsasoak ez dira legedirik gabeko eremuak; pertsonon eskubideak ez dira ur gatzatua urtzuz desagertzen. 1985 urteko hitzarmen bati segi, bilaketa eta sokorri betebeharra segurtatzeko gisan, Bilaketa eta Salbatze (BES) edo *Search And Rescue (SAR)* guneka zati-tuak dira itsas-eremuak, horiek banaturik daudela itsaso bazterreko estatuaren artean –kostatik 19,3 kilometro arte diren ur territorialak baino askoz zabalago dira BES gune hauek-. Itsas zuzenbideari buruzko Nazio Batuen hitzarmenari jarraikiz, uretan zailtasunetan dagoen pertsona bat kausituz gero, laguntza bideratzeko betebeharra dauka estatuak. Are gehiago, bere bizia lanjerrean kausitzen ez den portu batera lehorreratu behar du, bai ala bai. 2018ko ekainaren 27az geroztik, BES gune propioa dauka Libiak ere, –2017an EBk Libiari zuzendu 8 milioi euroko diru laguntzari esker osatutakoa-. Hori horrela, 19,3tik 200 kilometrotara zabaldu du bere kontrol espazioa. Espazio hori Italiaren eremu izatetik Libiarena izatera pasa da, sokorrien koordinazioa ere azken horren ardura bilakatu. “Libiako kalbarioan bizitzea baino nahiago dute Mediterra-



CHAMSEDDINE MARZOUG
MEDITERRANEON ITOTAKO
ERREFUXIATUENTZAT OSATU DUEN
"EZEZAGUNEN KANPOSANTUA"-N.

neoren zeharkatzeari lotu eta itsasoa hil". 2018ko ekainaz geroztik, sokorri operazioek are zailtasun gehiago dituzte: arriskuan dagoen ontzi baten berri emateko luzatu deiak erantzunik gabe gelditzen dira. Erreskate lanetan dabil-tzan humanitarioek jasandako presio eta jazarpenak areagotu dira. Gainera, Libia dagoena izanda, "portu segur batera lehorreratzeko" betebeharra zangopilaturik dago. Etorkinek Libian jasandako tratu txarren "konplize" izatea leporatu diote EBri hamarnaka GKEk. Urrats bat gehiago eman zuen Europak 2019ko martxoan: 2015az geroztik, pasatzaile klandestinoen sareak desegiteko eta hauen ontzietan metaturiko errefuxiatuak sokorritzeko osatu *Sophia* operaziokoei ontziak kendu zizkien. Ez da gehiago estatuen ontzirik Mediterraneoan. GKE bakar batzuk dabilta ze-

rumuga miatzen, ontzi batzuk atzeman eta salbatu nahian. Ez nahi duten bezala, haatik, -ahal duten bezala-. Jasandako presio administratibo, judizial eta politikoak ikaragarriak dira. *Mare Jonio, Eleonore, Open Arms, Lifeline, Sea Watch 3, Iuventa...* bahituriko ontziak itsasoratzten utzitakoak baino anitzez gehiago dira. Askoz gehiago dira ere haien misioa abandonatu behar izan dutenak. Artikulu hau idazterakoan ontzi bakarra dago Mediterraneoan, SOS Mediterraneo egituraren *Ocean Viking*. Baliteke beste bi ureratzea baina ezin jakin azken momentura arte.

Behar orduan, errefuxiatuez beteriko ontziak hartzeko prest den porturik ez dute kausitzen. Inork ez ditu nahi eta sekulako denbora galtzen da estatuen arteko banaketa kalkuluetan eta negoziaketetan. "Denbora galtzea da eta ho-

rrekin bizien galtzea". Portu baten beha diren bitartean, ezin dutelako sokorri lanetan aritu. Eskubideen errespetua eta betebeharren gauzapena eskatzen die Europako estatuei SOS Mediterraneo zuzendariak. Arduragabekerirantz doan azken erabakia izan da urriaren 24koa: Mediterraneoan eraman beharreko bilaketa eta sokorri operazioak areagotzearen kontra bozkatu zuen egun horretan Europako Parlamentuak.

Migrazioen Nazioarteko Erakundearen azaroaren 13ko zifrari segi, 2019 urtean 91.568 etorkin ziren Mediterraneoetik Europara sartu -Greziarako eta Espainiarako bideak ere kontutan harturik-. Iaz baino %11 gutxiago. Gutxitze hori migrazio politikaren eragin-kortasunaren islatzat dauka Europako Batzordeak. Ez duenak ikusi nahi, ez du ikusten. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com